

# **EUSKALTZAINDIAREN AGERRALDIA NAFARROAKO PARLAMENTUAK EUSKARARI BURUZKO FORU LEGE BERRI BAT EGITEKO SORTU DUEN BATZORDE BEREZIAN**

Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, 2018ko irailaren 12an

Parlamentari jaun-andreak, agur:

Gaian sartu aitzinetik, agerraldi honetan ordezkatzeko dugun Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Nafarroako Parlamentuan Euskarari buruzko Foru Lege berri bat egiteko sortu duzuen Batzorde Bereziagatik eta, horretaz gain, Euskaltzaindia Batzorde honetan parte hartzeraz gaituzteagatik.

## **Atariko gisa**

Euskaltzaindia euskararen akademia da, Nafarroako Foru Diputazioaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien babespean 1918ko urrian sortu eta 1919ko urrian eratu zena. Beraz, 100 urte betetzera doan erakundea da. Eta, horrekin batera, aurtengo euskara batuaren edo estandarraren aldeko erabaki garrantzitsua hartu zeneko 50. urteurrena da. Jadanik jakina den bezala, datorren hilabetean hasi eta 2019ko urriaren bitartean, bai mendeurrenaren, bai 50. urteurrenaren ospakizunetarako ere, antolatu den ekitaldi-programa interesgarri baten bezperan gaude.

Akademia sortu eta zenbait urte geroago, frankismoa amaitutakoan, 573/1976 Dekretuaren bidez, Euskaltzaindiari Euskararen Errege Akademia izatera (*Real Academia de la Lengua Vasca*) aitortu zitzaion. Bere jardueraren eremua Hego Euskal Herriko Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa dira, ondotik bi autonomia erkidego bilakatu direnak. Bi erkidego horietan, hizkuntzari dagokionez, Euskaltzaindia da erakunde aholku emaile ofiziala (Euskal Autonomia Erkidegoan, 3/1979 Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4. artikulua arabera, eta, Nafarroako Foru Komunitatean, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 3.3. artikulua arabera). Ipar Euskal Herrian ere Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala. Hala onartuko da bihar, irailaren 13an, euskararen aldeko hizkuntza politikaren eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoak Euskaltzaindiarekin sinatuko duen hitzarmenean.

Aipatu dugun 573/1976 Errege Dekretuak, Euskaltzaindiaren zeregin nagusiak bi ataletan banatzen ditu: 1) Iker Saila eta 2) Jagon Saila.

- Iker Sailaren helburua hizkuntza lantzea, ikertzea eta arautzea da, saila osatzen duten hiztegigintza, gramatika, dialektologia, onomastika, literatura... batzordeen eta hainbat egitasmo eta lantalderen bidez, hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea eta euskararen erabilerari buruzko

aholkuak eta arauak ematea [Dekretuaren 1. artikulua a), b), c), d) eta j) atalak].

- Jagon Sailari egokitutako xedeak euskararen estatus sozialaren alorrekoak dira, besteak beste, «hizkuntza eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza denen komunikabide izan dadin lan egitea». [Dekretuaren 1. artikulua e), f), eta g) atalak].

## **Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean izandako parte-hartzea**

Euskaltzaindia bere sorreratik eta, bereziki, 1976ko Dekretuaz geroztik, arduratsu jokatzeko saiatu da egokitu zitzaizkion eginbeharrak betetzen. Alde batetik, euskara landu, ikertu eta arautzearen ondorioz hizkuntzaren kalitatea bermatzen eta, bestetik, euskararen estatusa babesten, Jagon Sailari egokitutako berariazko arduren bidez (hots, aipatutako «hizkuntza eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza denen komunikabide izan dadin lan egitea»). Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, zeregin horietan erantzukizunez jokatzeko gain, kezka bizia ere agertu izan du. Hala egiaztatzen dute, besteak beste, Akademiak egin dituen adierazpenek. Izan ere, 1976az geroztik plazaratu dituen 54 adierazpenetatik 21 Nafarroari dagozkionak dira.

Horietatik 4 Parlamentu honetan onartutako lege edota erabakien ondorioz sortutakoak. Honako hauek, hain zuzen ere:

- 1979an. Ikusirik, *Junta Superior de Educación* zelakoaren bidez, ez zela kudeatu nahi izan nafarrek gogotsu espero zuten elebitasun dekretua eta, horren ondorioz, Foru Komunitatea dekretu horretatik kanpo gelditzen zela, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuari eta Foru Diputazioari eskatu zien beren jarrera hainbat lasterren agertu eta nafarren hizkuntzaren alde beharrezkoak ziren neurriak hartzeko.
- 1982an. Ikusirik, Foru Hobekuntzaren Legearen 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua eman ziola eta, beste inon ez bezala, gure hizkuntzaren lur eremua zatitu egiten zuela eta, ondorioz, ukatu euskara Nafarroa osoaren eta nafar guztien eta bakoitzaren ondasuna dela.
- 1985ean. Nafarroako Euskararen Legearen aurreproiektuaren aitzinean. Ikusirik, gainerako beste erkidegoetako hizkuntza politiketan ez bezala, Foru Komunitatea hiru eremutan zatitzen zuela eta, horrenbestez, lege proposamen horrek oraindik gehiago estutu eta mugatzen zituela Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren 9. artikulua jarritako euskararekiko baldintzak, hain zuzen ere, irizpide geografikoa eskubide pertsonalen gainetik jartzen zuelako.
- 1994an. Nafarroako Parlamentuaren aitzinean salatu zuen, Euskarari buruzko 1986ko Legeak gure hizkuntzari irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan markatzen zizkion eremu mugak zabaldu ahal izateko aukera galdu izana, alderdi politikoen alderdikeriak zirela medio. Aldi berean, gogorarazi zien euskara, nafar guztien ondarea denez gero, iritzi eta ideologia guztien gainetik eta alderdikeria guztietatik kanpo utzi behar zela.

Gainerako 17 adierazpenak ez dira zuzenean Parlamentu honi dagozkionak; bai, ordea, hemen onartutako 18/1986 Foru Legearen ondorioz sortu diren egoerei dagozkienak:

- 1) Adierazpen horietako hamarren bat sortu dira Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiengatik, batik bat, Euskararen Legearen aplikazio edota garapen gisa ezarri izan dituen neurri estu eta murriztaileengatik. Laburbilduz, honako hiru multzo hauetan sailkatzen ahal dira:
  - 2000. urtean Nafarroako Gobernuaren presidenteari egindako eskaera, eraberritutako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak Foru Komunitateko hizkuntza legeria bere edukian eta espirituan bete eta nafar guztien hizkuntza eskubideak berma zitzala erregutuz, eta, ondotik, 2001. eta 2003. urteetan egindakoak, aditzera emanez 372/2000 eta 29/2003 foru dekretuek, 1986ko Foru Legea garatu beharrean murrizteko neurriak ezartzen zituztela.
  - 1991, 1997, 1998, 2006 eta 2011. urteetan Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaerak, FMko irratien lizentziak banatzeko deialdietan Euskararen Legearen 27. artikulua dioen «euskararen mailaz mailako presentzia bultzatzea» eta horretarako «planak gauzatzea» kontuan ez hartu izanagatik, eta ondorioz, esleipen guztietan euskarazko irratia baztertu izanagatik; bai eta 2009. urtean egindakoa, Iruñerrian hogeitaz euskaraz emititzen ari zen irratia bakarraren antenaren kokapena zela-eta ustezko arazo teknikoa bideratzeko laguntzarik ez emateagatik.
  - Nafarroko Gobernuari igorritakoa, 2012. urteko aurrekontuetan, Euskaltzaindiari %41,3ko beherakada aplikatu izanagatik.
- 2) Beste 6 adierazpen bestelako erakunde batzuei eta Espainiako Gobernuari zuzenduak dira, hartutako zenbait erabakiren ondorioz, hala nola:
  - 1986. urtean Estatuko Hauteskunde Batzordeko buruari zuzendutakoa, Nafarroako hauteskunde txarteletan euskara erabat baztertua utzi eta, ondorioz, nafarren hizkuntza eskubideak urratzeagatik.
  - 1995.ean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean aurkeztutakoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzi-epaimahaiak emandako 1994/09/19ko sententzian, besteak beste, baieztatzen zelako Iruñean ez zela bertan jaiotako euskaldunik.
  - 1997.ean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzi-epaimahaiak emandako sententziagatik adierazitakoa, sententzia horrek atzera bota zituelako irakaskuntzaren eta administrazioaren arloetarako Barañaingo Udalak euskara jakitea beharrezkotzat joz egin zituen zenbait lanpostu deialdi.
  - 2001. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoretzari zuzendua, euskarazko irakaskuntza planak indartzeko eskatuz.

- Espainiako Gobernuari bidalitakoak. Batetik, 2010. urtean “Televisión sin Fronteras / Mugarik gabeko Telebista” herri-ekimenaren eskaera Espainiako Legebiltzarrean bideratu eta onartua izan zedin. Bestetik, 2016.ean igorritakoa, Industria Ministerioak emandako agindua bertan behera uzteko eskatuz; izan ere, agindu horrek Nafarroan euskal telebista ikustea galarazten zuen eta, horren ondorioz, nafar anitzen hizkuntza eskubideak ukatzen, alegia, telebista Foru Komunitateko berezko bi hizkuntza ofizialetako batean ikusi nahi zuten nafarren eskubideak.

3) Aipatzekoa da azkenik, 2014-2015 ikasturte berrirako matrikulazio kanpaina ofiziala zela eta, Nafarroako gurasoei zuzendutakoa, bere seme-alabak nafar guztiena den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, mundu zabalera begira hezi zitzaten eta, horretarako, euskarazko D ereduan matrikulatzera animatuz.

Azpimarratzekoa da Euskaltzaindiak egin dituen adierazpen guztietan argi eta garbi utzi nahi izan duela:

- Bere egitekoa Nafarroa osoaren eta nafar guztien eta bakoitzaren ondarea den euskara zaintzea eta defendatzea dela, eta eginbehar horretara mugatzen dela.
- Dagokion helburu hori lortu ahal izateko, beti aritu izan dela elkarlanean Nafarroako erakundeekin, aldian aldiko gobernuarekin alegia, baina jakinik eta argi utziz Euskaltzaindiaren egitekoa interes politiko eta ideologikoetatik kanpo eta gaineratik dagoela, hain zuzen ere, politika Akademiari ez dagokion esparrua delako.
- Euskaltzaindiaren ustez, euskarak interes politikoaren gaineratik egon behar duenez gero, politikoei behin eta berriz eskatu izan diela euskara alderdi bakoitzaren ideologia eta komenentziaren gaineratik jartzeko eta, jarduera politikoan norberaren interesak zilegi baldin badira ere, euskara alderdien arteko liskarretatik kanpo uzteko.
- Eta, azkenik, Akademiak behin eta berriz adierazi nahi izan duela lankidetzan aritzeko eskaintza eta hori izan dela bere jarrera; izan ere, xedea, euskararen beraren defentsa da eta euskara Nafarroako Foru Komunitateko gizartearen lokarri sendoa izatea.

Lankidetzaren horren lekuko dira, besteak beste, Euskaltzaindiak, 1989az geroztik, bere jardura eremuko bost administrazio publikoekin, hots, Nafarroako Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin sinatu dituen hitzarmen bateratuak, eta Nafarroako Gobernuarekin 2002az geroztik indarrean dagoen aldebiko hitzarmena, hizkuntza politikaren antolaketa eta garapenerako duen Euskarabidearen bitartez. Lankidetzaren beste bi lekuko esanguratsu ditugu, orobat, 1997az geroztik Iruñeko Udalarekin urtero sinatzen duen hitzarmena, eta Foru Parlamentu honekin ere lehenengo aldiz 2015eko urtarrilaren 21ean sinatu eta 2018ko martxoaren 14an berritua izan dena.

Nafarroako erakunde publikoei dagokienez, aipatutako hitzarmen horien aplikazioan gauzatzen da gehienbat Euskararen Legearen 3.3. artikulua dioena, hots, «hizkuntza arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak». Hor sartzen dira

bete-bete, batetik, hizkuntza arauak eta, bestetik, hain garrantzitsua den hizkuntza kalitatearen arloa. Gainera, kontuan izatekoa da, gobernuaz gain, beste gainerako zenbait erakundek ere, hala nola Nafarroako udal, kontzeju, mankomunitate, euskara zerbitzu eta abarrek, bai eta nafar biztanleek partikulari ere, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkartzaren bidez egiten dituzten kontsulta eta eskaerak.

Zalantzarik ez dago, Parlamentuko Batzorde Berezi hau orain aztertzen ari den gaia ez litzatekeela hizpide izanen orain dela 38 urte, 1980-09-15ean orduko Foru Parlamentu hartan, aldeko 33 botorekin eta aurkako 29rekin hartutako erabakia gauzatu izan balitz, hots, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan behar zuela zioena. Zalantzarik ere ez, sei urte geroago, 18/1986 Euskararen Legeak mugarik gabeko ofizialtasuna aitortu izan balio Nafarroako hizkuntza propio honi, ez zirela sortu izanen 573/1976 Errege Dekretuak Euskaltzaindiaren Jagon Sailari egokitutako xedeen ondorioz (hots, «hizkuntza eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza denon komunikabide izan dadin lan egitea») Akademiak plazaratu behar izan dituen adierazpen gehienak, arestian ikusi ahal izan dugun bezala, nafarren hizkuntza eskubideak ukatzearen edota ez errespetatzearen ondorioz sortuak izan baitira.

## **Aitzina begira**

Aipatutakoez aparte, badira egin nahi den aldaketaren alde mintzo diren beste oinarri sendo batzuk. Horien artean Espainiako Konstituzioa, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta Konstituzio Epaitegiaren jurisprudentzia.

- a) Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua dio Estatuko hizkuntza mota guztiak kultura ondare aberatsa diren aldetik, hizkuntza ofizialak izanen direla dagozkien autonomia erkidegoetan eta begirune eta babes berezia izanen dutela. Ezaguna den bezala, ildo horretatik abiatuta, gatzelaniaz gain, beste hizkuntza propioa duten gainerako autonomia erkidego guztietan ofizialtasuna lurralde osoan ezarri zen, eremukako inolako mugarik gabe.
- b) Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak 7. artikuluan ezartzen dituen helburu eta oinarriek honela diote «Hizkuntza horiek hitz egiten diren lurraldeetan [...] politika, legeria eta jarduera praktikoa hurrengo helburu eta oinarrietan errotuko dute»:
  - «Eskualdeetako edo Eremu Urriko hizkuntzak aitortzea, kultur aberastasunaren erakusle dira» (a puntua).
  - «Eskualdeetako edo Eremu Urriko hizkuntza bakoitzak hartzen duen geografia-eremua errespetatzea; hala, beraz, administrazio-banaketak, lehendik hor zeudenak nahiz berriak, ez dira oztopo izango Eskualdeetako edo Eremu Urriko hizkuntza hori sustatzeko» (b puntua).
  - «Bitartekoak jartzea Eskualdeetako edo Eremu Urriko hizkuntza hitz egiten den eremu batean bizi baina hizkuntza hori hitz egiten ez dutenen esku, nahi izanez

gero, hizkuntza hori ikas dezaten» (g puntua).

- c) Konstituzio Epaitegiaren etengabeko jurisprudentzia, hizkuntza koofizialen arloan legegintza-erregulazioaren inguruari dagozkionak ezarri dituena. Orobat, nabarmentzekoak dira, besteak beste, ekainaren 28ko 31/2010 epaia eta, ez hain aspaldi, eman zituen uztailearen 4ko 88 eta 89/2017 epaiak, bi hizkuntza koofizial dituzten autonomia-erkidegoetan –Nafarroa ere hala da– eskumen-esparrua ezartzeari dagokionez.

Orain arte aipatutakoen ildotik, argi ondoriozta daiteke, beharrezkoa dela Nafarroako Euskarari buruzko Foru Legea berritzea. Parlamentu honek erabaki beharko du zein neurritan, betiere begi bistan izanik, Nafarroako Foru Komunitatean euskara bizi harremanetarako eta kultura eta gizarte komunikaziorako tresna izateko eskura jarri behar diren aukerak.

Aipatutako legeriaren aitzinean, ez dirudi inork zalantzan jar dezakeenik zenbait printzipio, hala nola euskara gure Foru Komunitateko kultura ondareztat jotzea, ondare horren jabe diren nafarren hizkuntza eskubideak bermatu behar izatea, edo euskara historikoki baztertua eta gutxiagotua izan den heinean, hura erabili eta sustatzeko neurriak hartu behar izatea. Hauek aitortzea eta berauek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea botere publikoen betebeharra da. Euskaltzaindiari dagokio, ordea, printzipio horiei erabateko sostengua eman eta bete daitezen botere publikoei galdegitea. Hortaz, Euskaltzaindiaren eskumenetik kanpo geratzen dira botere publikoek jarri beharreko baliabideak, markatu beharreko egutegiak, neurrien erritmoak, etab. Dena dela, onuragarri litzateke neurri horiek guztiak interes jakin batzuen edo unean uneko abagune edo aukera politikoen gainetik jartzea. Hori da, hain zuzen, nafarrak ordezkatzeko gaituzuen Parlamentu honetako kide zareten eta botere legegilea osatzen duzuenen eskumena. Zuei dagokizue, bada, Nafarroan 1982az geroztik onartutako legeen ondoriozko egoera aztertzea eta hartu beharreko neurriak erabakitzea eta prozedura egokiak ezartzea.

Dena dela, guztien gainetik, eta hasieran esan bezala, Euskaltzaindiaren izenean zorionak eman nahi dizkizuegu Euskarari buruzko Foru Lege berri bat egiteko xede duen Batzorde Berezi hau eratzeko hartutako erabakiagatik.

Parlamentu honi dagokio Nafarroako hizkuntza politika erabakitzeari eta garatzeari sostengua ematen dion legea ezartzea, eta hori da, hain zuzen ere, ondoriorik izan ez zuen 1980ko irailaren 15eko erabakiarekin egin ahal izan zuena eta, bereziki, 18/1986 Foru Legea onartzearekin egin zuena. Hala ere, legea garatzeko jarraian onartzen diren dekretu, agindu, ebazpen eta arauak erabakigarriak izaten dira, eta jakina da dokumentu horien bitartez legearen benetako muina gutxieneko edukietara murriztu edota saihesten ahal dela.

Horrelakorik gerta ez dadin, premiazkotzat jotzen dugu Parlamentuak onartutako legea oso zehatza izatea, haren garapena ahalik eta hobekien bermatu ahal izateko, betiere, euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko, azken batean, hura aplikatzeko ondotik hartzen ahal diren arauak (foru dekretuek, foru aginduek, ebazpenek eta abarrek) ez dezaten legea bera itxuraldatu.

Gure ustez, Parlamentu honen erabakiz onartutako legeak oinarrizko printzipiotzat hartu beharko luke euskara Foru Komunitate osoaren berezko hizkuntza eta ondare kulturala dela eta,

hortaz, nafar guztiena. Horregatik, egun indarrean dagoen Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako eremukako banaketa hori iraganeko ikusmolde baten kutsua besterik ez da, gaur den egunean inolako zentzurik ez duen giza harremanen eta hizkuntzaren iritzi estatikoa erakusten duena. Mugikortasuna eta dinamikotasuna dira, ezbairik gabe, bai egungo bizimoduaren, bai hizkuntzaren beraren ezaugarriarik nabarmenenak; atzera egiterik ez duen errealitatea eta, egunetik egunera, etengabe eta indar handiagoz aurrera egiten segituko duena. Begi bistakoa da egungo bizimoduan hizkuntza ezin dela, inondik ere, parametro estatikoetara mugatu. Hori dela eta, lege berriak honako printzipio nagusi hauek bermatu beharko lituzke:

- Euskara Nafarroa osoaren eta nafar guztien eta bakoitzaren hizkuntza denez gero, euskararekiko nafar guztiek duten eskubidea, berdintasuna eta askatasuna bermatzea.
- Euskara berreskuratzeko eta garatzeko babesa Nafarroa osoan. Horretarako, argi eta garbi ezarri beharko liriteke euskara sustatu eta erabiltzeko baliabideak, euskara jakin eta erabiltzeko neurriak eta, aldi berean, erabat saihestu, hizkuntza dela-eta izan daitezkeen bazterketak.
- Euskararen ikaskuntza eta erabilera bermatu behar dira, herritar bakoitzak hautatzeko duen eskubidea errespetatuz. Beste edozein hizkuntza bizi bezalaxe, euskara ere hizkuntza dinamikoa da eta, beraz, bizitzarako komunikazio tresna behar du izan, hala kultura- nola gizarte-komunikazioan.
- Foru Komunitatean gaur den egunean indarrean dagoen eremukako zatiketa linguistikoa alde batera uztea, horietarako guztietarako oztopo eta eragozpen besterik ez baita.
- Argi uztea euskara, hizkuntza ofiziala izateaz gainera, Nafarroako eta beste lurralde batzuetako hizkuntza berezkoa dela, eta, orobat, beste lurralde horiekin euskararen arloko gai komunetan lankidetzaren egokia antolatu behar dela.
- Hizkuntzaren etorkizunerako erabakigarriak diren erabilera-esparruak finkatzea, nafarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko. Hartara, esparru horien artean daude administrazio publikoa, justizia administrazioa, dokumentu publikoak, erregistro publikoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei emandako informazioa eta publizitatea eta, orobat, euskararen erabilera esparru sozioekonomikoan ere sustatzea.
- Euskara erabiltzeko printzipioa, kalitatezko euskararen oinarritua eta komunikazio testuinguru bakoitzari egokitua, betiere Euskaltzaindiaren irizpideei jarraikiz, Euskaltzaindia arlo honetan kontsultarako erakunde ofiziala baita eta, aldi berean, berretsiz Akademiak hizkuntza arloan duen aginpidea.

Hau da Batzorde Berezi honek egindako gonbitari erantzunez, modu orokorrean eta laburki, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa atsegin osoz azaldu nahi izan dizueguna. Hartara, berretsi nahi dugu Euskaltzaindiaren prestasun osoa Nafarroako Parlamentuko Batzorde Berezi honetako lanetan elkarlanean aritzeko eta, horretarako, behin eta berriz baliatu nahi ditugu azken urte hauetan sinatu ditugun hitzarmenak.

Esker mila zuen arretagatik.

Andres Iñigo eta Sagrario Aleman